



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa Asuntos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailak 2**

**Vitoria-Gasteiz, 2 de febrero de 2016**

## Lehendakaritza

### GOBERNUAK BERE LEGEGINTZA EGITARAUAREN EGUNERAKETA ETA SEIHILEKO JARRAIPENA ONARTU DITU

- **Agindutako ia proiektu guztien prestaketa hasita dago, eta gehienen administrazio-izapideak aurreratuta daude.**

Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako legegintzako jarduerak biltzen dituen Legegintza Egitarauaren eguneraketa onartu du gaur. Gobernu-kontseiluaren gaurko bileran, gainera, 2013-2016 aldirako agindutako hogeita bederatzi lege-proiektuek 2015eko bigarren seihiilekoan zuten egoera aztertu dute.

Eusko Jaurlaritzak gobernantza eta kudeaketako gardentasun printzipioekin hartutako konpromisoa betetzea aldera, akordioa Eusko Legebiltzarrera bidaliko du, gobernu-ekintza azter dezan.

Legegintza-egitaraua moldagarria eta malgua dela kontuan hartuz, eguneratu egin dute, aurreikusitako bi lege-proiektu ordeztuz –Ingurumena babestekoa eta Enpleguaren Euskal Legea–, eta Gobernu-kontseiluak joan den astean onartu zuen Dopajearen aurkako Legea aldatzeko lege-proiektu berria erantsiz.

Jaurlaritzaren Legegintza-egitarauan aurreikusitako ekimenen egoerari dagokionez, agindutako ia 29 proiektuen prestaketa dago abiarazita eta gehienen administrazio-izapideak aurreratuta daude. Izan ere, gobernu-kontseiluan onartu ondoren, hogeit Eusko Legebiltzarrera bidali dituzte.

## LEGEGINTZA EGUTEGIAREN JARRAIPENA

### 2015eko BIGARREN SEIHILEKOA

#### HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen Lege-proiektua.**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua.
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2014/11/11n.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Lege-proiektua.**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/07/07an.

- Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/06/23an.
- Enplegu Publikoaren Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/12/22an.
- Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/11/10ean.
- Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/11/10ean.

## **EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA**

- Merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen hirugarren aldaketaren Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2014/12/30ean.
- Emakume Nekazarien Estatutuaren Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2014/11/04an.
- Turismo Legearen proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean.
  - Jaurlaritzaren Kontseilura noiz bidaliko da: 2016ko lehen sei hilekoan.

## **ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**

- Enpleguaren Euskal Autonomia Erkidegoko Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Bertan behera utzia.
- Kooperatiben Euskal Autonomia Erkidegoko Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean.
  - Jaurlaritzaren Kontseilura noiz bidaliko da: 2016ko lehen sei hilekoan.

➤ Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Autonomia Erkidegoko Lege-proiektua.

- Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
- Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/02/03an.

## OGASUN ETA FINANTZA SAILA

➤ Diru-laguntzen eta Laguntzen Euskal Autonomia Erkidegoko Lege-proiektua.

- Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean.
- Jaurlaritzaren Kontseilura noiz bidaliko da: 2016ko lehen seihilekoan.

➤ Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretua aldatzeko Lege-proiektua

- Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Prozedura hasteko agindua emana.
- Jaurlaritzaren Kontseilura noiz bidaliko da: 2016ko lehen seihilekoan.

➤ 2014-2018 aldian aplikatzeko baliabideen banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru aldundien ekarpenak zehazteko metodologiaren Lege-proiektua.

- Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Aztertze fasean.
- Jaurlaritzaren Kontseilura noiz bidaliko da: 2016ko lehen seihilekoan.

➤ Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen ekainaren 14ko 11/2012 Legea aldatzeko Lege-proiektua.

- Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua.
- Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/07/27an.

➤ 2014-2017 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Planaren Lege-proiektua.

- Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua.
- Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2013/12/10ean.

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

➤ Lanbide Heziketaren Euskal Autonomia Erkidegoko Lege-proiektua.

- Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
- Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/12/29an.

➤ Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Lege-proiektua.

- Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean.
- Jaurlaritzaren Kontseilura noiz bidaliko da: 2016ko lehen seihilekoan.

- **Agirien eta Agiritegien Euskal Autonomia erkidegoko Lege-proiektua.**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean.
  - Jaurlaritzaren Kontseilura noiz bidaliko da: 2016ko lehen seihilekoan.
- **Kirol-lanbideak betetzearen gaineko Euskal Autonomia Erkidegoko Lege proiektua**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean.
  - Jaurlaritzaren Kontseilura noiz bidaliko da: 2016ko lehen seihilekoan.
  -
- **Kiroleko Dopinaren aurkakoa Legea aldatzen duen Lege-aurreproiektua**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2016/01/26an.

## SEGURTASUN SAILA

- **Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea aldatzeko Lege-proiektua.**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua.
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2014/05/13an.
- **Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzeko Lege-proiektua**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua.
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2014/07/08an.
- **Suteen Prebentzio eta Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak Arautzeko Lege proiektua**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua.
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/07/27an.
- **Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Lege-proiektua.**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua.
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2014/07/01ean.
- **Poliziaren Euskal Autonomia Erkidegoko Lege-proiektua.**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean.
  - Jaurlaritzaren Kontseilura noiz bidaliko da: 2016ko lehen seihilekoan.

## OSASUN SAILA

- **Adikzioen Lege-proiektua.**
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua.
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2014/12/09an.

## INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorraren proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Bertan behera utzia.
  
- Lurzoruaren kutsadura ekidin eta zuzentzeko Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua.
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2014/05/06an.
  
- Portuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lege-proiektua.
  - Tramitazioaren egoera 2015eko abenduaren 31n: Onartua
  - Jaurlaritzaren Kontseiluan noiz onartu da: 2015/11/03an.

## Lehendakaritza

### **EUSKO JAURLARITZAK MARGARITA URIA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO ZUZENDARI IZENDATU DU**

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaurko bileran erabaki du Margarita Uria Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendari izendatzea, Jose Ignacio Pariente de Pradaren ordezkoko gisa, De Pradak iragan urtarrilaren 29an bere borondatez kargua utzi ondoren.

Izendapen horrek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean, ostiralean, hilak 8.

## Herri Administrazioa eta Justizia

### **EUSKO JAURLARITZAK FUNTZIONARIOEI ITZULIKO DIE ESPAINIAKO GOBERNUAREN OINARRIZKO LEGEAK 2012-AN KENDUTAKO «35 ORDUKO LAN-ASTEA»**

- Erabakiak 70.000 langileri ekarriko dio onura. Eusko Jaurlaritzak 2000 urtean Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean hartutako konpromisoa betetzen du hala; hau da, sindikatuekin adostutako itunak berriz ere abiaraztekoa, berme ekonomiko handienarekin abiarazi ere.
- Gaur onartutako dekretuak 8,7 milioi euroko eragin ekonomikoa izango du. Pertsonal publikoak 22 opor-egun izango ditu eta 6 baimen-egun norberaren kontuetarako.
- Gainera, Eusko Jaurlaritzak Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean biltzeko deia egingo du, datorren asteko ostegunean, langile publikoei beren antzintasuna dela-eta metatu dituzten egun libreak itzultzeko sindikatuekin adosteko.

Gobernu Kontseiluaren gaurko bileran, «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioentzako, estatutupeko langileentzako eta langile lan-kontratudunentzako 2016ko lanaldia zehazten duen Dekretua» onartu dute. Dekretuak 1.592 lan-orduko urteko lanaldia ezartzen du; hau da, 2015ekoaren aldean, 22 ordu eta erdian gutxitu da benetako lanaldia. Hala, Eusko Jaurlaritzak bete egin du langile publikoei «35 lan-orduko lan-astea» itzultzeko konpromisoa, sindikatuekin 2000. urtean sinatua eta Espainiako Gobernuak 2012an ezeztatua.

Espainiako Gobernuak oinarrizko araudi hori eman eta hiru urte eta erdira hartu du Eusko Jaurlaritzak erabakia; hau da, aurrekontu eta ekonomikoko egoerak horretarako aukera eman duenean. Aurtengo urtarrilaren 1etik aurrera izango du indarra.

Horrez gain, 2016ko lanaldiari buruzko dekretuak langile publikoentzako 22 opor-egun eta norberaren kontuetarako beste sei baimen-egun (45 ordu) barne hartzen ditu. Hori guztiori, sektoreko negoziazio-mahaian ondoren har litezkeen sektore-akordioak gorabehera.

Gaur onartutako Dekretuak 8,7 milioi euroko eragin ekonomikoa izango du. Gastu handiena Osakidetzaren ordezkapenak eta Ertzaintzako langileen ordusariak ordaintzeko inbertituko da.

### **FUNTZIO PUBLIKOAREN MAHAI OROKORRA**

Eusko Jaurlaritzak Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean biltzeko deia egingo die sindikatuei, dekretuari buruzko xehetasunen berri emateko eta langile publikoei beren antzintasuna dela-eta metatu dituzten egun libreak itzultzearen

inguruan negoziatzeko. Eusko Jaurlaritzak sindikatuekin egun hauen itzulera adostu nahi du, 2016an indarrean izateko. Bileran, ostegunean, otsailaren 11a, izango da.

## **70.000 FUNTZIONARIO**

Dekretuak euskal administrazio-publikoan lan egiten duten ia 70.000 pertsonei eragingo die:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioei.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioei.
- Ertzaintzako langileei.
- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileei.
- Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-administrazioko funtzionarioei, aplikagarri zaien araubidearen esparruan.
- Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileei.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileei.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lan-kontratuko langileei.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari dagozkion erlijio lan-kontratuko langileei.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoko eta Segurtasun Saileko lan-kontratuko langileei.

## Herri Administrazioa eta Justizia

### **EUSKO JAURLARITZAK ERREKURTSOA JARRIKO DU ERIZAINAREN BOTIKA-PRESKIPZIORAKO SENDAGILEAREN ZAINZA ETA KONTROLA EZARTZEN DUEN ESPAINIAKO DEKRETUAREN AURKA, ETA ARAUAREN KAUTELAZKO ETENDURA ESKATUKO DU**

- Araua ohiko jardunbidearen aurka doa; hau da, medikuntzako eta erizaintzako profesionalen arteko koordinazioaren aurka, eta segurtasun juridikoko arazoak dakartza Euskadin erizaintzako lanbidean jarduteko.
- Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari gogorarazi dionez, Euskadik berezko eskumenak ditu osasunaren esparruan eta Espainiako Gobernuak erakunde eskudunekin eta sektoreko profesionalekin negoziatu gabe aldatu du itundutako lege-testua.

Gobernu-kontseiluak administrazioarekiko auzietarako auzitegian errekurtsu bat jartzea onartu du gaur; hain zuzen, 945/2015 Errege Dekretuaren, urriaren 23koaren, erizainek giza erabilerarako botikak eta osasun-produktuak eman, erabili eta banatzeko baimena arautzekoaren, aurka. Zehazki, arauaren 3.2 artikulua sendagilearen alde aurreko eta nahitaezko diagnostiko-kontrol berri bat ezartzen die erizaintzako profesionalei beraiek botikak agintzeko. Kontrol horrek medikuntzako eta erizaintzako profesionalen artean itundutako eta koordinatutako gaur egungo jardunbide ohikoa aurkatzen du. Jardunbide horri esker, erizainek zenbait botika agindu zezaketen gaur egun arte, esaterako, gripearen txertaketa-kanpainetan.

Errege Dekretu horren bitartez, Espainiako Gobernuak kontrolpean eta zainzapean jartzen ditu erizaintzako profesionalak, haien autonomia eta eskumenak murriztuz (\*). Araua medikuntzako eta erizaintzako profesionalen jardunbide ohikoen eta haien arteko koordinazioaren aurka doa, halaber, eta lanbide horretan jarduteko segurtasun juridikoko arazoak ekartzen ditu. Horrez gain, Euskadik osasun-esparruan dituen eskumenen kontra ere badoa.

Orobat, Espainiako Gobernuak formaren alorreko huts egiteetan erori da Errege Dekretu horren onarpenean. Horiek horrela, deuseztagarria ere liteke araua; izan ere, itun bat hautsita eta osasunaren arloan eskudundutako gainerako erakundeekin eta neurriaren eraginpeko profesionalekin negoziatu gabe onartu du dekretua. Ez da Estatuko Kontseiluaren gogoetapean eta irizpenpean jarri ezta ere.

Eusko Jaurlaritzak arauaren aurkako errekurtsua jarriko du eta berorren kautelazko etetea eskatuko, berori aplikatzeak konpontzeko «zailak edo ezinezkoak» gerta litezkeen kalteak ekar liezazkiokelako Osakidetzari.

**(\*) 2013/55/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena, kualifikazio profesionalen aintzatespenari buruzko 2005/36/EE Zuzentaraua aldatzeko dena.**

## Enplegu eta Gizarte Politikak

### **GOBERNUAK ARRETA GOIZTIARRERAKO DEKRETU BAT ONARTU DU 0-6 URTE BITARTEKO HAURRENTZAT**

Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak hala proposatuta, gaur onartu du Arreta Goiztiarrerako Dekretua. Horren helburua da oinarrizko arauak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuen arloan Arreta Goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartzeak antolatzeke eta koordinatzeke, sail desberdinen jarduketak egokiro koordinatuko diren eredu integral eta efikaz bat bermatzeko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jo du araudi egoki bat ezartzea, esku-hartze integralaren kalitatea zein efikazia bermatuko duen eredu bat izateko. Esku-hartze hori garapenean nahasmenduak dituzten edo horiek izateko arriskua duten zero urtetik sei urte bitarterako haurrentzat izango da eta bertan parte hartuko dute beren eskumenen baitan jarduketak egiten dituzten hainbat sistemek eta diziplinarteko orientazioko profesionalek. Datuek adierazten dute alterazio horiek arrisku bat direla edo garapenean nahasmenduak sor ditzaketela adin-bitarte horretako haurren % 10 inguruan. Arazo handi bat eta garrantzi handikoa da, beraz.

Haurren garapenaren lehenengo urteetako ezaugarria da funtzioak era progresiboan jasotzen dituztela, hala nola, posturen kontrola, desplazamenduaren autonomia, komunikazioa, ahozko hizkuntza eta interakzio soziala. Bilakaera hau estuki lotua dago umetoki barnean hasitako nerbio-sistemaren heltze-prozesuarekin eta antolamendu emozional zein mentalarekin eta horrek egitura genetiko egoki bat eskatzen du, baita gizakiaren oinarrizko beharrak asetzea ere bai maila biologikoan bai psikoafektiboan.

Elementu horien edozein alteraziok arrisku bat dakar edo adingabeen garapenean nahasmendu ugari ekar ditzake.

Alterazio horiek garapenaren etapetako edozeinetan gerta daitezke: jaiotzean, jaiotza inguruan, jaiotze ondoren eta/edo garapen goiztiarrean. Nazioartean onartuta dauden estandarren arabera, garapen horrek 0 urtetik 6 urtera bitarteko aldia hartzen du. Datuek adierazten dute alterazio horiek arrisku bat direla edo garapenean nahasmenduak sor ditzaketela adin-bitarte horretako haurren % 10 inguruan. Arazo handi bat eta garrantzi handikoa da, beraz.

Laburbilduz, helburua da inplikaturako sistemetako profesionalen eskura jartzea arreta goiztiarrari buruzko diziplina anitzeko esparru teoriko zein praktikoa eta kontzeptuala, baita baliabideak funtzionalki antolatzeke eta koordinatzeke ereduaren oinarrizko formulazioa ere. Inplikaturak dauden hiru sistemen ardura partekatuari eragotzi gabe, eredu integral eta diziplinartekoak proposatzen duena da instituzio arteko koordinazio-mekanismoetako ardura nagusia Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari ematea funtzionalitate arrazoiak direla bide.

## Enplegu eta Gizarte Politikak

### SAILARTEKO BATZORDE BATEK 2020RAKO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA LANDUKO DU

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gobernu-kontseiluari gaur jakinarazi dio 2020rako Euskal Estrategia lantzeko lan-prozesu bat hasi dela; maiatzaren bukaerarako amaitutako egotea espero da aipatutako prozesua. Estrategia honetan Lehendakaritzak koordinatutako Sailarteko Batzorde batek egingo du lan eta bertan parte hartuko dute Estrategia honen diseinuarekin harremanik zuzenena duten gobernuko arloek; hala, Estrategia honetan parte hartuko dute arlo hauetako Sailburuordetzeko titularrek: Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuna; Industria; Enplegua eta Lana; Ekonomia eta Aurrekontuak eta Lanbide Heziketa, baita Lanbideko Zuzendaritza Nagusiak ere.

Gobernuaren ustez, enplegua da herritarrak gehien kezkatzen dituen gaietako bat, inpaktu sozial orokorra baitu gai honek. Hori dela eta, lehen mailako lehenitasuna duen politika da.

Euskal Autonomia Erkidegoko adierazle makroekonomiek adierazten dute, agidanez, badela hasi berri den susperraldi bat, eta beharrezkoa da hori sendotzea. Ildo horri jarraiki, beharrezkoa da, besteak beste, gazteen langabezia eta adinean aurrerago dauden herritarren langabezia bezalako egitura estrukturaleri heltzea; zeren iraupen luzeko langabeen kolektibo bihurtzeko arrisku handia dute eta, hala, horiek gutxitu ordez, denboran zehar kroniko bihurtu eta horien munta handitu egingo da.

Plan honek estrategia erako formulazio bat behar du, gizartearentzat erreferentzia izan dadin, sistema produktiboa garatzeko esparrurik egokiena bidera dezan eta hainbat eragile sozialek zein ekonomikok bat egiteko balio dezan politika, gizarte, lan, hezkuntza eta enpresako ekintzarako helburu eta jarraibide komunei dagokienez.

Estrategia hori, gainera, partaidetza sozial handienarekin diseinatu beharko da, zehazki, errealitatearen eta gure lan-merkaturen prospektibaren eta, batez ere, gure sektore produktiboen bilakaera aurreikusgarrien ezagutzarik handiena duten eragileen ekarpenekin.

Euskadiko Hiruko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren baitan, 2015eko urtarrilean adostu zen estrategia berri baten inguruan gogoeta egin eta diseinatu egin behar zela, aurrekoaren indarraldia amaitu ondoren eta enplegurako politika aktiboen transferentzia-prozesua amaitu ostean. Hitzarmen horretan oinarri partekatu batzuk eratu ziren gogoeta-prozesuari hasiera emate aldera, eta oinarri horien artean hauek dira aipatzekoak: hazkunde adimentsu, jasangarri eta inklusiboaren eredu bat; 2020rako denbora-horizontearekin bat egitea Europa 2020 Estrategiak eta berrikuntza zein espezializazio adimentsuaren gogoeta estrategikoak, hain justu, horren bidez Euskadik bere lehenitasunezko sektoreak eta garapen ekonomikoko bektoreak zehaztu ditu;

enpleguaren, hezkuntzaren zein prestakuntzaren eta garapen ekonomikoaren zein enpresarialarekin zerikusia duten plan publikoetan dagoeneko zehaztuta dauden gako estrategikoak eta operatiboak aztertzea; eta enpleguaren etorkizunean eragingo duten alor guztiak aztertzea. Hori guztia egingo da estrategian osoki integratuta, eta enplegu-politiken eta ekonomiako, gizarteko eta hezkuntzako politiken arteko batasunarekin babestuta.

## Osasuna

**EUSKO JAURLARITZAK GUNE PUBLIKO JENDETSUETAN  
DESFIBRILADOREEN DERRIGORTASUNA EZARTZEKO DEKRETUA  
EMAN ZUENETIK URTEBETE IGARO DENEAN, IA 900 DESFIBRILADORE  
AUTOMATIKO DAUDE EUSKADIN**

**Kanpoko desfibriladore automatikoak eta erdi automatikoak ipintzea eta erabiltzea arautzeko eta osasun arlotik kanpoko erabilera publikoko espazio jakin batzuetan horiek nahitaez ipini beharra xedatzeko dekretuaren inguruko balantzea egin du Jon Darpón-ek, Osasun sailburuak, gaur goizean, Gobernu Batzordearen osteko prentsaurrekoan.**

Osasun Sailak proposatuta Eusko Jaurlaritzak onartu eta gero, 2015eko otsailaren 5ean indarrean sartu zenetik **12 hilabete igaro direnean, Euskadin ia 900 (897) desfibriladore daude, guztira.**

**Osasuneko sailburu Jon Darpón oso pozik agertu da Dekretuak izandako emaitzekin eraginkortasun- eta kontzientziazio-helburuak bete direlako eta Euskadin osasunaren sektorean lan egiten ez dutenek ere erabil ditzaketen desfibriladore automatikoen kopurua oso handia delako.** Izan ere, pertsona batek bihotz-biriketako geldialdia izaten badu, larrialdi-zerbitzuak iritsi bitartean haren biziraupen-itxaropena handitu egingo da.

Ondorioz, **Dekretuari jarraiki, datorren otsailaren 5etik aurrera,** desfibriladore indibidualak nahiz kolektiboak izango dira merkataritza-gune handietan, aireportuetan eta merkataritza-portuetan, 50.000 biztanletik gorako udalerrietako tren- eta autobus-geltokietan, 2.000 erabiltzailetik gora dituzten metro-, tren- eta autobus-zerbitzuetako geltokietan, 700 pertsonatik gorako edukierako establezimendu publikoetan, ikuskizunetan eta aisialdi-jardueratan, eta 2.000 pertsonatik gorako edukiera duten hezkuntza-zentroetan.

Osasun Sailaren datuen arabera, **nahitaez jarri behar duten zentroen % 100k izango dute instalatuta. Hala ere, hori egiaztatzeko ikuskaritzak egingo dituzte martxoaren 1ean.** Ikuskatzaileek, besteak beste, desfibriladoreen **kokapena eta seinaleztapena, ezaugarriak, baldintza teknikoak eta instalazio- eta erabilera-baldintzak** egiaztatuko dituzte, araudia betez. Desfibriladorean nahitaez jarri behar dituzten instalazioak ez ezik, derrigortuta ez egon arren, arauak eragindako kontzientziazioaren ondorioz azken urtean desfibriladoreak ipini dituzten instalazioak ere aztertuko dituzte.

**Eusko Jaurlaritzak pertsonekin eta osasunaren babesarekin duen konpromisoaren** ondorio izan da arau hau. Ildo horretan, gaixotasun kardiobaskularrak dituzten pertsonak Osasun Sailaren **2013-2020 aldiko Osasun Planaren** lehentasun dira.

**Konpromiso horren ondorioz**, azken urtean, Osasun Sailak eta Osakidetzak gaixotasun kardiobaskularrek gizartean duten inpaktua txikitzeko eta miokardio-infartuaren arreta hobetzeko neurriak hartu ditu.

Hala, **Euskadin desfibriladorean ezartzeko beharraz gain** duela hiru hilabete miokardio-infartuen kasuan jarduteko protokolo bat, **infartu-kodea, aktibatu zuen**. Laguntza-protokolo hori **miokardio-infartuaren Osakidetzako laguntza-sarean garatu zuten, Bihotzez-en, jarduteko denborak murrizteko**. Horretarako, Euskadin gaixotasun horren arretan jarduten duten baliabide guztien ekintza koordinatuan oinarritzen da.

**Osasuneko sailburuak baieztatu duenez**, Osasun Sailak eta Osakidetzak ildo horretan lanean jarraituko dute, **Bihotzez laguntza-sarea babesten eta gaixotasun kardiobaskularrei erantzun hobea emateko neurriak garatzen**.

Uneotan, desfibriladorei buruzko aplikazio bat prestatzen ari dira Osasun Saila eta Osakidetzak, **gailu mugikor nahiz tableterako, Euskadin ezarritako desfibriladoreei eta haien kokagune zehatzari buruzko informazioa berehala eta modu eguneratuan emateko**.

Aplikazio berria uda honetarako izango da operatiboa, hala euskaraz nola erdaraz, Android nahiz IOS gailuetarako. Doan deskargatu ahalko da. **Baliabide berri bat da; hari esker**, norbaitek geldialdi kardiorrespiratorio bat baldin badu, mugikorrean nahiz tabletan eta ahalik eta modu azkarrenean eskuratu ahalko da jarduteko oso baliagarria den informazioa.

## Presidencia

### EL GOBIERNO APRUEBA LA ACTUALIZACION Y EL SEGUIMIENTO SEMESTRAL DE SU PROGRAMA LEGISLATIVO

- **Prácticamente la totalidad de los proyectos comprometidos han iniciado su elaboración y se encuentran, en su mayoría, en un avanzado estado de tramitación administrativa.**

El Gobierno Vasco ha aprobado hoy la actualización de su Programa Legislativo, que recoge las acciones legislativas previstas para la presente legislatura. En la reunión de hoy el Consejo de Gobierno ha analizado, además, el seguimiento correspondiente al segundo semestre de 2015 de la situación procedimental en la que se encuentran los veintinueve proyectos de Ley comprometidos para el periodo 2013-2016.

El acuerdo será remitido al Parlamento Vasco para que este pueda realizar el oportuno análisis de la acción de gobierno, cumpliendo, así, el compromiso con los principios de Gobernanza y de transparencia en la gestión adquirido por el actual Ejecutivo vasco.

Así y atendiendo al carácter adaptable y flexible del programa legislativo, se ha procedido a su actualización, sustituyendo dos proyectos de ley previstos inicialmente -el de Protección del Medio Ambiente y el de Ley Vasca de Empleo- e incorporando el nuevo proyecto de Ley de Modificación de la Ley contra el Dopaje, que fue aprobado por el Consejo de Gobierno la semana pasada.

En lo que se refiere a la situación actual de las iniciativas previstas en el Programa Legislativo del Gobierno, prácticamente la totalidad de los 29 proyectos comprometidos han iniciado su elaboración y se encuentran, en su mayoría, en un avanzado estado de tramitación administrativa. De ellos, veinte han sido ya remitidos al Parlamento Vasco tras su aprobación en Consejo de Gobierno.

## SEGUIMIENTO DEL PROGRAMA LEGISLATIVO

### SEGUNDO SEMESTRE 2015

#### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA

##### ➤ Proyecto de Ley Municipal Vasca.

- **Situación tramitación a 31 de diciembre de 2015:** Aprobado.
- **Fecha de aprobación en Consejo de Gobierno:** 11/11/2014.

- Proyecto de Ley de Fundaciones del País Vasco.
  - Situación tramitación a 31 de diciembre de 2015: Aprobado
  - Fecha de aprobación en Consejo de Gobierno: 07/07/2015.
  
- Proyecto de Ley de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno vasco.
  - Situación tramitación a 31 de Diciembre de 2015: Aprobado
  - Fecha de aprobación en Consejo de Gobierno: 23/06/2015.
  
- Proyecto de Ley de Empleo Público.
  - Situación tramitación a 31 de diciembre de 2015: Aprobado
  - Fecha de aprobación en Consejo de Gobierno: 22/12/2015.
  
- Proyecto de Ley de transparencia, participación ciudadana y buen gobierno del sector público Vasco.
